

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“N-124 errepidea, 25,5 kilometrotik 31,9 kilometrora, bikoizteko eta autobia bihurtzeko eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara**

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren foru diputatuak 2019ko azaroaren 18an, 931/2019 Foru Agindua hartu du. Hona hemen horren testua:

“Okupatu beharrekoa den eremua handitzea proiektu hau gauzatzeko: “N-124 errepidearen 25,50 kilometrotik 31,90 kilometrora arteko tartea bikoiztu eta autobide bihurtzeko proiektua, N-124 errepidearen 25,50 kilometrotik 34,00 kilometrora arteko tartea bikoizteko eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektutik banakatua”.

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 19ko 610/2007 Erabakiaren bidez, hasierako onespina eman zitzaizen aipatutako proiektuari eta hark eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari eta, orobat, erabaki zuen jendaurrean jartzeko izapidea egitea.

Ondoren, otsailaren 24ko 87/2015 Erabakiaren bidez, aurkeztutako alegazioei erantzuna eman eta behin betiko onetsi zen “N-124 errepidearen 25,50 kilometrotik 31,9 kilometrora arteko tartea bikoiztu eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektua, N-124 errepidearen 25,50 kilometrotik 34,00 kilometrora arteko tartea bikoizteko eta autobide bihurtzeko proiektutik banakatua” proiektua eta eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda.

Errepide Zerbitzuaren urriaren 4ko txostenean adierazten denez, proiektuan aurreikusten ziren sarbideak berrantolatzearen ondorioz, kendu egin zen Berantevillako 1 poligonoko 268 lurzatiak lehendik zuen sarbidea eta, horren ondorioz, orain ez du ibilgailuentzako sarbiderik.

Egoera hori zuzentzeko, Errepide Zerbitzuak proposatu du 6,00 metro zabal izango den bide-zor bat eratzea poligono haren beraren 269 lurzatian, eta horrek 700 m<sup>2</sup> afektazioa eragingo du. Helburu horretarako, proiektuaren desjabetzapen espedientearen 90/100 finka sortzea proposatzen da.

Egoera horretan, aipatutako proposamena balioetsi ondoren, beharrezkotzat jotzen da erasandako lurzatiaren desjabetzapena handitzeko izapideak egitea, eta foru administrazioak 2.373,00 euroan zenbatetsi ditu.

Nahitaezko desjabetzearen legearen 15. artikulua eta hori garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra edo helburu handiagotzeetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritziz. Gainera, Nahitaezko desjabetzearen legeak 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, premiaz okupatu behar hori egikarrituko diren proiektuen balizko handitzei ere aplikatu behar zaie. Beraz, bidezkoa da proiektuak eragindako ondasun eta eskubide gehiago desjabetzeko izapideak ere egitea, kasu honetan premiazko prozedura bidez.

Aztertutik Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditu dagoela adierazteko idatzitako eta Desjabetzapen Atalak egindako txostenak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Handitzea, I. eranskinean xedatutako eran, "N-124 errepidearen 25,50 kilometrotik 31,9 kilometrora arteko tartea bikoiztu eta autobide bihurtzeko eraikuntza proiektua, N-124 errepidearen 25,50 kilometrotik 34,00 kilometrora arteko tartea bikoizteko eta autobide bihurtzeko proiektutik banakatua" k okupatu beharreko azalera, gerta daitezkeen nahitaezko desjabetzapenatarako, aldi baterako okupazioatarako, zortasunak jartzeko eta, horien guztien ondorioz, aldatu beharreko zortasunak aldatzeko.

Bigarrena. 2.373,00 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontu 2019ra luzatuko 50106.5300.6000005 "Beste desjabetze batzuk" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-5246/000.19.5.19), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Hirugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eranskinean jasotzen den finkari dagokion balio justuaren kopurua, Desjabetzapen Atalaren buruak balio justuaren ordainketarako proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta xedapen erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Berantevillako Udaltxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 18a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

N-124 ERREPIDEA, 25,5 KILOMETROTK 31,9 KILOMETROBIA, BIKOIZTEKO ETA AUTOBIA BIHURTZEKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA  
 PROYECTO DE CONSTRUCCION DE DESDOBLAMIENTO Y CONVERSION EN AUTOVIA DE LA CARRETERA N-124 PK 25.5 A PK 31.9

Esp./Expte. 14/113-D

FINKA- RENZK.	TITULARIA	KATASTRERKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	BEHIN-BETIKOIA	BEHIN-BETINEROKA	ERAGINDAKO AZALERA M <sup>2</sup>		EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSALA						REGAL ZORFASUNA	HEGAL ZORFASUNA		
N FINKA	TITULAR	DATOS CATASTRALES	PARCELA	MUNICIPIO	ARDOZEGAMENDU	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	TEMPORAL	ERAGINDAKO AZALERA M <sup>2</sup>	SERVIDUMBRE VIELO	DIA	HORA
90/100	Petello González-Moreno Fernando González-Moreno Oñtz, Isabel María González-Moreno Oñtz, M. Rosario	1	269	Berantevilla	LARORRE LIBERTATUA / CERREAL REGADIO	BIEN AFECTADO			700		12/12/19	10:00